

Euskara lan-mundura

hizkuntza kudeaketa

Euskara lan-mundura

Euskara gure enpresetan kontuan hartu beharreko faktorea. Garbi dago, hezkuntzako hizkuntz ereduen arabera eboluzioari so eginez, etorkizunean enpresak pertsona elebidun gehiago eta euskaraz jarduteko gaitasun handiagoa izango dutenak elkartuko dituen langile eta bezeroen topaleku izango direla.

Bestetik, egungo langileei begira ere badago euskara kontuan hartzeko arrazoirik: euskarak ere, giza baliabideen estrategiaren baitan, kolektiboa enpresaren proiektuan integratzeko bidea eskaintzen baitu.

Elhuyarrek enpresentzako euskara-planak garatzen dihardu azken 10 urteotan. Asko dira Elhuyarrekin batera lanean ari diren enpresa eta erakundeak: ELAY, LABEIN, IRIZAR, MAIER, JMA, TRATAMIENTOS TERMICOS T.T.T, ORONA, MATRICI, TALLERES PROTEGIDOS GUREAK, CAF, KUTXA, EHU/UPV, BILBOKO UDALA, ESTAMPACIONES BIZKAIA, ARTHUR ANDERSEN, NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA, UNESCO ETXEA, BATZ, AMPO eta DANONA.

Elhuyarreko hurrengo alean gai honen inguruan informazio gehiago emango dugu.

hiztegi gintza

"Sinonimoen kutxa" kalean

Jon Urrujulegik idatzi eta Elhuyarrek orraztu eta kaleratutako sinonimo eta antonimo hiztegia ikasleei zuzendua dago eta oso erabilgarria da. 21.416 sarrera, 8.297 antonimo, 59.800 sinonimo eta 26.900 adiera biltzen ditu.




Salneurria ere kontuan hartzekoa da, liburu merkea merkaturatzeko eginiko ahaleginagatik: 2.300 pezeta.

informatika

Microsoft Office 2000 euskaratua

Microsoften Office 2000 euskaratu du Elhuyarrek. Bost aplikazio izango ditu eta horietako lau euskaraz: Word, Excel, Outlook eta internet Explorer 5.0. Power Point-en azken bertsioa ere izango da multzoan, baina gaztelaniaz, Microsoft-ek horrela nahi izan duelako.

Baina aplikazioak euskaraz izatea nahikoa ez denez, bi gidaliburu idatzi ditu Elhuyarreko informatika-taldeak, Microsoft Windows 98 eta Microsoft Office 2000 erabiltzen ikasi ahal izateko edo zalantzak argitu ahal izateko.



Juan Mari Beltranen "Euskal Herriko soinu-tresnak" CD-ROMa

92 soinu-tresnaren fitxak, 250 argazki, 20 bideo-zati, soinu-tresna guztien audioa (ia 2 ordu), tresnak egiten ikasteko lan-

tegia eta hauen egitura, erabilera, jotzeko era, historia, bibliografia, diskografia... Elhuyar eta Beltranen lan mardul hau jadanik salgai dago (7.900 pta.).

zientzia-dibulgazioa

25 urte zientziaren dibulgazioan

"XXI. mendearen atarian ere zientziak goza dezagun" lemapean ospatu zuen Elhuyarrek zientzia-dibulgazioan 25 urte bete izana.

Ekitaldian bi berri nagusi: eskuartean duzuen aldizkari eraberritua eta gazteei zuzenduriko gehigarria: GAZTELHUYAR.



Irrati-kolaborazioak

Ikasturtearekin batera, Elhuyarrek irratsaio-sortari ekin dio.

Badira 3 urte Euskadi Irratian "Norteko Ferrokarrilla" irratsaioa emititzen dela Elhuyarren gidaritzapean. Aurtengoarekin 4. urteari eman diogu hasiera eta asteazkenero 20:00etatik 21:00etara emititzen da.

Baina ez da hor amaitzen Elhuyarren irrati-lana: batetik, zientzi gaiak lantzen ditu astean behin 15 minutuz honako irrati-tan: Euskal Herria Irratia, Herri Irratia, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi Irratia eta Gure Irratia. Zientzi gaietako berri laburrek edota zientzi dibulgazioko erreportajeak lantzen dira saio horietan. Bestetik, Euskadi Irratiko "Lauretan Babel" irratsaioan astearte, asteazken eta ostegunetan zientziari buruzko berriak entzuteko aukera duzue, Elhuyarrek 10 minutuko kolaborazioa eskaintzen baitu.

Bi aste barru jakingo da Monpaseko isurbideak jasandako kalteen larritasunaren berri

Donostiako kostaldean jarri nahi den Monpaseko isurbidea urperatzeko prozesuan hodiak jasandako kalteak aztertzen ari dira Unión Temporal de Empresas Monpás-eko teknikariak. Ikerketaren emaitzak bi aste barru jakingo dira.

Felipe Roman Confederación Hidrográfica del Norte-ko arduradunaren hitzetan "badakigu isurbideak kalteak jasan dituela baina ez dakigu horien nondik-norakoa, ez eta hartu beharreko neurriak nolakoak izango diren. Aukera bat baino gehiago daukagu eskuartearen, baina oraindik ezin dugu esan nondik joko dugun".

Roman-ek isurbidearen konponketa-lanak hasi aurretik ikerketa sakon eta zehatzak egin behar direla adierazi zuen: "isurbidearen egoera zehatza jakin behar dugu, era horretako kontuetan hurbilketak ez baitira baldinagarriak. Ezertan hasi aurretik hodia nola dagoen eta hodiaren zein zati kaltetu diren zehazki jakitea ezinbestekoa da". Roman-ek azaldu zuenez, "ikerketa ez da bi aste baino lehenago amaituko. Kontuan hartu behar da zailtasun handiko lanak direla, hodia nahiko sakonera handian baitago."

Arazoak joan den hilaren 7an sortu ziren, isurbidearen

urperatze-lanak hasi zirenean. 800 m luze den hodia itsas hondoa zulatutako U itxurako arraila batean ezarri behar zuten. Baina urperatze-lanetan zebiltzala sortutako eragozpenek aurreikusitako egitasmoak aldatzera behartu zituzten teknikariak. Ondorioa honakoa izan zen: hodia arrailatik kanpo geratu zen eta zati batzuk kaltetu egin ziren. Isurbidea urgaineratu eta berri ongi urperatzea da konponbidetako bat; bestea, isurbidea dagoen bezala utzi eta hondarrez estaltzea. (...)

Informazio-iturria: El Diario Vasco, 1999/10/19

Urpeko isurbideari buruzko iritzi kritiko bat

Garikoitz PLAZAOLA
EGUZKiko kidea

Uliako itsasertzean bertan botatzen diren ur zikinak itsas zabalera eramango dituen urpeko isurbidea eraikitzeke lanak hasi izana hots handiz ospatu zen ofizialki. Egun batzuk geroago jakin genuen isurbidea urperatzeko operazioak porrot egin zuela eta, are okerrago, hura zehatz-mehatz nola konpondu behar den inork gutxik dakiela, oraingoz behintzat. Dena dela, porrotaren berri izan baino lehen, EGUZKIkook urpeko isurbidearen inguruan dugun iritzi kritikoak azaldu genuen eta egun ere iritzi horri eusten diogu, isurbidea Donostialdeko saneamendu-plangintzaren atal bat baino ez delako eta atalik garrantzitsuena ere ez delako.

Ezer baino lehen esan beharra dago urpeko isurbidea eraikitzeke lanak orain hasi izanak agerian uzten duela Donostialdeko saneamendua zein puntutaraino dagoen atzeratuta. Gogoan izan Europako Batasunaren Saneamendu Arteztarauak agintzen zuenez, itsasora botatutako ur zikinak 2000 urtea baino lehen araztu edo depuratu behar zirela. Kontuz: Arteztarauak ur zikinak depuratzeko agintzen zuen, ez itsas zabalera eramateko. Eta hori besterik ez du urpeko isurbideak egiten, ur zikinak itsas zabalera eraman alegia, errazago sakabanatzeko eta diluitzeko, hots, kutsadura gutxiago nabaritzeko.

Edozein gaizki ulertzea errotik ezabatzeke, argitu dezagun gu ez gaudela urpeko isurbidearen aurka eta poztu ere egin ginela lanak hasi zirenean. Baina poztu egin ginen lan horiek Donostialdeko

saneamendu plangintza aurrera doala seinale ziren heinean, hemen lortu behar dena plangintza hori lehenbailehen burutzea baita. Noiz burutuko da ordea? Loiolako harrobietan araztegia eraikitzean, Donostialdeko saneamenduaren giltzarria araztegia delako, ez urpeko isurbidea. Are gehiago, isurbidearen kontrario ez bagara ere, aitor dezagun urpeko tutu horrek zenbait kezka sortzen duela gudan, hots, isurbideari esker kutsadura gutxiago nabarituko denez gero, araztegia eraikitzeke epeak ez ote dira laxatuko? Erantzuna edozein dela ere, Donostialdeko saneamenduaren kontura zerbait ospatzekotan, garbi dago araztegia martxan jartzeko egunean ospatuko dugula. Zorigaitzez, urteak falta dira egun hori iritsi arte.